

# MANEX ERDOZAINZI-ETXART IDAZLE

*ITXARO BORDA*

---

**A**zken berrogei urte hauetan, Euskal Herria inarrosi duten «saltsa orotako xalhia» izan denaz mintzatzea ez da erraz. Manex Erdozaintzi-Etxarten kasua da, eta mintzalari bat baino anitzez gehiago behar liteke, gizonaren alde guzien barnaki aipatzeko edo ikertzeko. bertsolariei bezala, eman didaten gaia «Manex Erdozaintzi-Etxart idazle» suertatu da. Halaz, obra zabal eta aberats baten sekretuen zilatzen saiaturako naiz, jakinez seguraski oraino ere alor ugari ilunpean geratuko direla eta zaizkidala.

Bizi osoa idazten iragan duela erraitea gutxi da. Idazte ekin-tzaren munta eta neurria agertzen baldin bada, konturatzen ga-

ra Manexek zerabilen hitzaren leizeak hondorik ez duela, eta urteak beharko direla hitz multzoen argitara ekartzeko. 1949ko martxoaren 29koa da ezagutzen diogun lehen olerkietarik bat. «Le Jour De L'Exilé» tituluarekin, Brivesko seminarioan eri zen batez papereratu zuena. Hamabost urte zituen orduan. Baina pentsa dezakegu, antzinagotik berdinki, etxera eta amari igortzen zizkion gutunetan olerkitxoak kausitzen ahal zirela. Dударik gabe, idaztearen bokazio edo gustu goiztiarra ukan zuen Manex Erdozaintzi-Etxartek.

Garai haietan, etxetik urrun zegoen. Idaztea euskararekilako bezain herriarekilako lotura sakona zen harentzako, hots exilioa arintzeko moldea. Etxera eta egunero beltzatzen zuen ingurazti pertsonalean idazten zuen bitartean, euskal kulturaren ganako interesa lantzen ari zen Manex Erdozaintzi-Etxart, *Gernika* aldizkaria irakurriz eta han ateratzen ziren koplak eta kantuak kopiatuz. Halatan, sabaiak idatz-nahikundez eta jakintzaz bete ondoren, hasi zen ibarlarra, iparraldeko beste gazte askoren gisa, artikulua *Herria* astekarira bidaltzen. Ondorioz hamabost-hogei urteko arteka hortan dastatu idaztearen tiriari ez zion sekula uko eginen.

Apeztu bezperan eta apeztearekin, idazteari funts berri bat eransten dio: euskaldun jendearen kontzientzia loakartuen iratzararaztea. Gorago azaldu dugun egunkari pertsonala hornitzeaz gain, egunez egun, kolpez kolpe, Euskal Herriak eta herri honetako jendeek pairatzen zituztenak literaturara pasatzearen, olerkiak herronkatzen zituen: oroit-bideko mila hitz-harri koxkor. Bizkitartean, aldizkari frangotara helarazten zituen testuak eta kolpez kolpekako poesiak: *Jakin*-ko iparraldeko luma bakarra izan zen luzaz: *Egan* eta *Eusko Gogoa* delakoetan parte hartzen zuen eta *Gure Herria*-n ere bai.

*Gure Herria*-n hain zuzen, Piarres Lafittekin polemika mingar bat eduki zuen 1956an «Euskal kultura baten behar gorria» gaia, eztabaida sutsu bilakaraziz. Orduko euskal mundu kulturala solas gogorrez zirikatzen zuen: «Euskaldun izaiteko ez da aski ogitea bilkura bat hoben, bazkari bat hor, frantsesegiz eginekako mintzaldi zonbeit artetan. Ez da aski dantza, pilota eta ohitura zonbeiten begiratzea». Artikulua «*M. Ostogia*» izengoitiaz

sinatu zuen. Hitz horietan, Manex Erdozaintzi-Etxartek iduriz Bazkaltzaleen Biltzarra bilakatzen ari zen Eskualtzaleen Biltzarra zuen gibelaipagai. Piarres Lafitten mihi zalhuak ihar-despen lakonikoa eman zion arrunt: «Otoi ez zitela hainbertzetaraino hasarra bertzen kontra; eta dakizunaz geroz zer den egiteko, lot zaizkio zuhaur lanari!» Lafitten gomendioaren obratzeari uztartuko zitzaion Manex Erdozaintzi-Etxart handik hara, iparraldeko bakartasun kulturalik handiengan. Iparraldeko diogu, zeren denbora haietan, hegoaldeko euskaltzale zenbaitekilako harremanak sendotzen baitzituen: Ion Etxaide, Koldo Mitxelena, Jokin Zaitegi, Norbert Tauer, Barandiaran, San Martin, Onaindia edo Villasante izan ziren haren lagunak.

1960 eta 1970 urteetan zehar, mundu berri baten eraikitzea susmatzen zuen poetak, mundu berriari dagozkion aldaketa-sail guziekin. Birtarte horretan idatzi zituen hain ezagunak egiten zaizkigun «Populu bat zutik» (1967), «Hil zorian ote gara?» (1969) eta Burgosko auzitik landa «Herria izerditan» (1970). 1972tik aurrera Domintxaine-Raforttoeneko «Anaitasuna» anaidia osatu zuten Xalbat Bellemur. Santos Beloki eta Manex Erdozaintzi-Etxartek. Lan, otoitz, idatz eta adiskidetasun leku hauta izan zen Raforttoenea. Susmoen egiaztatze urte haiek arras emankorrak ziren poetarendako. Hor idatzi zituen «Bizitza pilpirak», «Herri honen erraietan» eta «Nafarroari poema irekia», berritan *Maitz* argitaletxeak bilduma batean plazaratu dituenak. Olerkietan, besteak beste, bilduma antzekoetan, 1983ko «Trein honen drangadan» deritzona geratzen da publikatzeko.

Irakur ditzakegun hiru liburuak aztertu baino lehen, ohar pare bat eginen dugu. Badu jadanik hamar urte Manex Erdozaintzi-Etxart itzali dela eta haren obraren hedadura ez da oraino itzartzen. Egiaren erraiteko iduri luke halako ahanzte kolektibo bat jasaten duela Ibarlako poeta xumeak. Aurten agertzen diren lanek behar lukete publikatze eta ikertze sail luzeagoen hastapenak izan. Hori lehenik. Gero hemen argitara emanak ez diren idazkien zerrenda laburra osa dezakegu: hor dago hunkigabea, Manex Erdozaintzi-Etxarten egunkari pertsonala, ingurazti asko, Manexek zituen pentsamenduak, igorri eta eskuratu gutunen testuak olerkien herexak dakartzatenak;

psikologiaz, talde-dinamikaz, politikaz, kulturaz eta soziologiaz izkiriatu artikuluak ere sakabanatuak daude. Manex Erdozaintzi-Etxartek egunero zerbait idazten zuten, eskuan zatxikan lumak pentsatzea errazten eta bideratzen bailuan.

Ardura Euskal herritik kanpo egon arren bere karguen araberan, beste idazleekin harreman indartsuak bazituela erran dugu. Harreman horien lekuko dago 1969an, San Martinek agertu zuen *Uhin Berri* olerki-bilduma. Hor Manex Erdozaintzi-Etxart kausitzen dugu Aresti, Etxamendi, Intxausti, Lekuona, Mikel Lasa, Artze, Luis Mari Mujika, Jose Azurmendi, Paulo Iztueta, Manex Pagola, Gexan Alfaro, Beñat Sarasola, J.A. Irigarai, X. Lete, D. Landart eta belaunaldi hartako poeta gazteen konpainian. Bestalde, ildo horretatik segituz, 1969an antolatu zen Euskal Idazleen Bilkuran parte hartu zuen, euskara batua gaiaren inguruan, *Uhin Berri*-ko kideekin eta Txillardegiri, Xalbador Garmendia, Torrealdaie edo Kanblong bezalako zerbaiten obratzeko borondateekin. Geroxeago ere, 1981ean *Maiatz* aldizkaria iparraldean sortu zelarik, Manex Erdozaintzi-Etxartek proiektua oso begi onez onartu zuen. Bilkuretara etortzen zen ahal zuenean, eta 1982ko lehen zenbakirako «*Herri honen erraitan*» eskaini zuen. *Maiatz* kideek Manex Erdozaintzi-Etxart zendu eta ondoko urteetan behin bederen deitu zuen Manex Erdozaintzi-Etxart ipuin eta olerki lehiaketa plazaratu zuten oroitzapenez.

Ibarlako poetaren baitan, euskararen grina jendeek jasaten zutenari tinki lotua zen bati. Ezin bereizi alabaina, mintzoa eta mintzatzailea, biak menperatuak baitabilta, gure kasuan gutxienez. Halaz jendeek ahal bezain hurbila zeukaten euskara batuan idazten zuten, Ibarla xokoko eta Benafarroako euskarari ederki eta armonikoki euskara batuaren lege berriak txertatuz. Euskara dinamiko eta sinkretikoa gainera, eguneroko hizkerarekin/egoerarekin nahasten zuten. Iduripeña ematen zuten, leku orotan idatz zezakeela —trentetan, ostatuetan, zeldan, lanean...— eta honenbestez idazteari debekatzeko zion bizi-lekuetarik ihes egitea.

Aipatu dugu iparraldean Manex Erdozaintzi-Etxartek egarri zuen bakardade kulturala. Artetarik horrek kezkatzen zuten

poeta: bere liburuek ez zuten oihartzunin, ez kritika-izpirik erdiesten, irakurlegorik ez balego bezala. Alta irakurlego bat ba-zeukan, dudarik gabe, baina herriaren pare, ixila zen. Dena dela, Manex Erdozaintzi-Etxarten merezimenduetarik bat liteke idazten tematu zela, egunean egunekoa, egunean eguneko euskaraz. Orain ikusten dugu Manex Erdozaintzi-Etxarten in-gurazti pertsonalak aztertzen baldin badira, Barnekalde ho-netako azken berrogei urteotako historia eraiki dezakegula, gizonaren eta idazlearen haria harilkatuz.

Itxuraz deus ez da, baina garrantzia badute idazki apurre k izkribatzeko ohitura hein batean desbalorizaturik den edozein herrialdetan.

Manex Erdozaintzi-Etxarten sinadura dakarten hiru liburu aurki ditzakegu: 1978ko *Hinki Hanka* olerki-bilduma, 1982ko *Gauaren atzekaldean* «nobelatxo» berak zion moldean; eta 1994an Maiatzek argitaratu *Bizitza pilpirak* poesiako obra. Bi lehenak ELKAREN eskutik jin zitzaizkigun. Lan bakoitza banan-banan hartuko dugu, ikusteko pixka bat zein bide ja-rraitzen duten.

1978an *Hinki Hanka* agertu zen beraz. Bilduma horretan bil-tzen ziren Manex Erdozaintzi-Etxartek 1956 eta 1976 urteen bitartean idatzi olerkiak. Ramuntxo Partarrieu haspandar ar-tistak moldatu zion azala, eta Pantxoia Saint Esteben zizelka-riaren obren argazkiak kausitzen ziren liburuaren erdialdean. Manex Erdozaintzi-Etxarten bizia —jendalde batena ere ber denboran— seinalatzen zuten hogeita hamahiru poema ze-kaizkigun bildumak. Olerki-andana bat jadanik publikatua zen, aldizkarietan han-hemenka. *Hinki Hanka*-n herri bat irauten, pairatzen, atsegin hartzen azaltzen zaigu «xutik» egoe-ra latzarengatik egun hobeagoen haiduru.

*Hinki Hanka*-n, olerki hunkigarriez gain, Manex Erdozain-tzi-Etxartek berak egiten dion hitzaurrea oso interesgarria zai-gu, idazlearen barne-bideak eta sinesteak zerrendatzen baiti-tu; zinezko fedezko akta edo kredo poetikoa dela uste dugu, fe-dezko akta guziek duten beratasun eta erraztasun usainarekin. Ordea berritasunik bada: iparraldeko kutsu erlijiozko poesia-ren eta hegoaldean garai hartan idazten zen poesia sozial hu-

tsaren artean bide liriko desberdin bat bilatzen saiatzen da ibarlarra. Manex Erdozaintzi-Etxartek aintzin-solasean erraiten du irakurtzearen plazerrak behar duela leitzailea gidatu eta poesia ez dela gutarik kanpo kokatua den ekintza bat. Herrikotasuna aitortzen zuen, eta agian, horregatik da oraino ere hain ezezaguna Euskal Herrian zehar Manex Erdozaintzi-Etxarten lan poetiko gaitza.

1982an *Elkarek* argitaratu zuen *Gauaren atzekaldean* nobelatxo *Orhi* sailean, 1973an idatzi zuen «Ilargi umea» lanaren hirugarren moldaketa zen *Gauaren atzekaldean* hau. Anar-tean, «Izerdi guneetan» titulua ere ukan zuen eta Beasaineko literatur sariketa batera igorria izan zen. Urte luzeetako oratzearen ondorioa, azkenean, 1981ean *Elkari* bidali zion. Nekez erdi umea bailitzan, idazleak berak *Gauaren atzekaldean* «nobelatxo» deitzen zuela errepikatuko dugu, autorea liburuaren akats, laburtasun eta maitagarritasunaz kontziente baitzen. Alabaina monologoak luzeak —luzeegiak?— dira eta irtorioaren haria arras meharra da. Halarik ere iduritzen zaigu liburua, Manex Erdozaintzi-Etxarten literatur bilakaeran urrats bat gehiago zela.

*Hinki Hanka*-ren bihotza Euskal Herria baldin bazen. *Gauaren atzekaldean* delakoarena Exilio-Gunea zen, Parise hain zuzen, exilio politiko bezain ekonomikoaren gunea. Iparraldeko min-sarraski garratzenetarik bat zuen beraz nobelak gaitzat. Oso bakan izan zen aipaturik exilioa horrelako manera oinazetsuan, desesperatuan eta errealistan. Ironia astunik eta zapart irri-egingarririk ez da Manex Erdozaintzi-Etxarten nobelan: urrun gara Tupingegiko Roxaliren eskematarik. Liburuan, exilioa jasaten dutenenganako amodioa eta elkartasuna sentitzen da hitz bederetan. Nobelan zehar agertzen da, biziki zaila dela herritik partitzea, hargatik iraun behar dela herioak harrapatu edo «etxera» itzuli artean.

Nobelaren haria sinplea da, sinpleegia zenbaitetan: Txomin eta narratzailea biak abiatzen dira hil berri zaien Migel adiskidearen pusken bila, eta pusketan Migelen ingurazti edo kaierra atzematen dute. Kaierrean idatziaren ildotik, Migelen Pariseko joan-etorriak arra-osatzen dituzte, Migelen langile

eta sindikalista lana, haren aktibitate politikoak, amodioak, hots jende exiliatuen arteko harremanen historia da *Gauaren atzekaldean*, gauaren presentziak egoeraren bortitza doi-doia ezitzen duelarik.

*Hinki Hanka* eta *Gauaren atzekaldean* Manex Erdozaintzi-Etxart oraino bizi zelarik argitaratu ziren. *Bizitza pilpirak* aldiz *Maiatz*-ek publikatu zuen 1994an ibarlarraren itzaltzearen hamargarren urteburuaren karietara. Bilduma horrek biltzen ditu hiru olerki-floka: 1974ko *Herri honen erraietan* jadanik *Maiatz* aldizkarian agertua, 1977ko *Nafarrari poema irekia* eta 1980ko *Bizitza pilpirak* argitaragabeak.

Bildumako hiru idazki-sailak olerki berdinen une desberdinak direla erran dezakegu, hiruak mila pusketan hausten ari den herriaren berbiltzeko saioak: *Herri honen erraietan* delakoan, egoeraren azterketa kasik klinikoa egiten du poetak; *Nafarrari poema irekia* poetak herri bakartiarentzako elkartasun gune bat harrapatzen dio eta *Bizitza pilpirak* deritzon herri izendatuari adiskidetasun eta jende-harremanen berotasuna eranstean dizkio, poeta hats eta hotsemailea bailitzan. Hiru olerkietan, iraganarekilako loturak, geroaren esperantza eta honek zilegitzen duen egoera larriaren onartzeko bezain aldatzeko eskubide pertsonal-kolektiboak agerian daude beti.

Hiru olerkietan euskara xumeki isurtzen da, sekula moralarik edo jujamendurik bota gabe. Baina lirikotasun goxoa gure ustez itxurazkoa da, herri-eskaera askoren oinarri gogorra gordetzeko bezala. «Lasaitasun bortitzaren» poemak dira, poema irekiak.

*Bizitza pilpirak* agertzeak beharko luke gure arteko poeta zintzo, kementsu, minbera eta indartsu baten ezagutzeko bidea zabaldu. Bizi zelarik haren lanek oihartzun gutxi eduki dute, eta ordua dugu altxor horren aztertzen hasteko. *Hinki Hanka*-ren berrargitaratzeko oztopoak badira, haietan gainditezina dirudielako poesiaren salgarritasunaren eremtabilitatearen muga.

Bukatzeko azpimarratzen ahal dugu —eta horrek ahanzte debekatzen digu...— Manex Erdozaintzi-Etxarten eskuko-

tasun edo disponibilitate literario-kulturala. Prest egon izan zen beti, hasiberriak ziren hemengo idazle gazte zenbaiten akuilatzeko, sustatzeko eta kontseilatzeko, eta izkribatzen ari baldin bagara gaurkoan —ongi edo gaizki baina ez da hori auzia...— hari esker izango da, parte batean. Aitorpena zor diogula pentsatzen dugu.